

# **¡No al saqueo de las pensiones!**

# **errespetatu langileon eskubideak!**

La ofensiva del capital contra el Estado de Bienestar no tiene límite. Con la excusa de la crisis, los distintos Estados siguen las directrices de una Europa en manos de la banca y el poder financiero. Reducen derechos laborales, salarios, y reforman el mercado de trabajo, y recortan el gasto público y social... Los mayores recortes en las últimas décadas se están aplicando a la mayoría de la población en beneficio de una élite económica, a la que se le reduce la carga fiscal, se le premia con ingentes bonificaciones, o se le permite defraudar.

Ahora, los responsables de esta crisis, van a recortar también el sistema público de pensiones:

- **Aumento de la edad de jubilación a los 67 años**
- **Aumento del número de años que hay que tener cotizados para tener derecho a una pensión.** Esto supone dejar cada vez a más personas sin derecho a pensión, ya que en un mercado laboral precario, con jornadas parciales y en el que lo único que tenemos asegurado es que nos podemos quedar en paro fácilmente, resulta prácticamente imposible cotizar los años que se requieren.
- **Aumento de los años a tener en cuenta para calcular la base reguladora,** actualmente en 15. Pueden pasar a 20 ó 25 años o incluso más. Esto podría reducir la pensión media hasta en un 20%.
- **Reducir la cuantía de la pensión** según cuantos años hayamos cotizado. Se plantea que para llegar al 100% haya que cotizar más años, hasta 38 ó 40.
- Eliminar la obligación de que las pensiones mantengan el **poder adquisitivo**.

Son recortes que nos afectan a todas y todos, sin excepción, pero que dejarán en una situación realmente insostenible a aquellas personas más en precario, a jornada parcial, a sectores feminizados, a las personas jóvenes...

**La reforma de las pensiones y su supuesta inviabilidad, no es más que un intento por acabar con el sistema público, para privatizar el sistema y poder especular.** Una estrategia que se está llevando a cabo en toda Europa, para salvar de nuevo a la banca con el dinero de nuestros bolsillos. **Todo un robo, pero un robo legal.**

**Un robo orquestado por el poder económico y llevado a cabo por el poder político.** Porque más allá de disputas electoralistas, todas las instituciones, tanto de Gasteiz o Iruña, como de Madrid, las encabezan PSOE-PSE, PNV o UPN, comparten el camino a seguir, comparten una alianza con la banca y grandes empresas para seguir llenando sus bolsillos a costa de exprimir cada vez más a la clase trabajadora.

Ya basta. La mayoría sindical vasca venimos respondiendo a todos estos ataques. Hemos salido a la calle, hemos realizado dos huelgas generales y vamos a seguir movilizándonos. Porque el futuro de miseria que nos han preparado, no lo queremos. Es necesario construir un nuevo modelo, modelo que impulse las medidas que la mayoría sindical puso sobre la mesa en el decálogo que propusimos ya en el 2009.

Modelo que garantice que todo el mundo pueda acceder a una pensión digna, y para ello son necesarias medidas contrarias a las actuales, enfocadas al reparto de la riqueza:

- Crear empleo, pero **empleo de calidad**; a mayor salario, mayor cotización.
- Que las **personas jóvenes** y las **mujeres** puedan incorporarse al mercado laboral, en igualdad de condiciones y oportunidades.
- Una **fiscalidad justa y progresiva**, donde quienes más ganan tributen más y donde las rentas del capital no sean beneficiadas.
- Capacidad e instrumentos para **que la clase trabajadora vasca decidamos** nuestro sistema de pensiones. Un marco propio de decisión.

Ya nos amenazaron con que tras esta crisis nada sería igual. En nuestra mano está que, efectivamente nada sea igual. **Es necesario seguir luchando por un verdadero cambio, por otro modelo económico y social en el que no sean las personas las que se utilicen para favorecer la economía de unos pocos, sino que sea la economía la que se situe a favor de la sociedad.** La clase trabajadora vasca debemos movilizarnos, salir a la calle, y reivindicar que nuestros derechos sean respetados.

# *¡No al saqueo de las pensiones!*

## errespetatu langileon eskubideak!

Kapitala burutzen ari den Ongizate Estatuaren kontrako erasoaldiak ez dauka mugarik. Krisialdiaren aitzakiaz, bankak Europak egin behar duena agindu eta Estatu ezberdinek men egiten dute: lan eskubideak kendu, soldatik murriztu, lan merkatua erreformatu eta gastu publiko eta soziala mugatzen dute... Honela, azken hamarkada luzeetan egin diren murrizketarik basatienak aplikatzen ari zaizkio herritarren gehiengoagi elite ekonomikoaren mesedetan, azken hauei zama fiskala arindu, itzelezko bonifikazioekin saritu eta defraudatzen uzten zaien bitartean.

Orain, krisialdiaren errudunek pentsioen sistema publikoa daukate jo mugan:

- **Erretiro adina 67 urtetara luzatu**
- **Pentsioa izateko beharrezkoak diren kotizazio urteak handituko dituzte.** Lan merkatu prekario honetan, zatikako jardunaldiekin, aldi baterako enpleguekin eta kale gorrira botatzeko erraztasun guztiekin, praktikan ezinezkoa izango da eskatzen dituzten urte guztiak betetzea eta, hortaz, gero eta jende gehiago pentsio eskubiderik gabe geldituko da.
- **Arautzeko oinarria kalkulatzeko urte gehiago hartuko dituzte kontuan.** Orain 15 urte hartzen badira kontuan, baliteke 20 edo 25 hartza hemendik aurrera. Honek gur pentsioak %20 edo gehiagoz murriztuko lituzke.
- **Jasotzen den diru kopurua murriztu,** kotizazio urteen arabera. %100era heltzeko, 38 edo 40 urte kotizaturik izatea nahi dute.
- Pentsioek **eros ahalmenari eusteko** betebeharra ezbatu.

Murrizketa hauek denoi eragiten digute, salbuespenik gabe, baina bereziki kaltetuko ditu prekarioen dauden langileak, jardunaldi partzialaz lan egiten dutenak, sektore feminizatuak, gazteak...

**Pentsio sistemaren ustezko porrota sistema publikoarekin amaitzea aitzakia baino ez da. Sistema publikoa pribatizatu nahi dute espekulatu ahal izateko.** Estrategia hau Europa osoan zehar burutzen ari da, berriro ere banka "salbatzeko" gure poltsikoetako diruaz. Lapurreta hutxa da hau, baina lapurreta "legala".

**Botere ekonomikoak eskatu eta botere politikoak gauzatuko duen lapurreta.** Ika-mika elektoralistatik haratago, instituzio guztiak, bai Gasteiz edo Iruñakoek, bai Madrilekoek, PSOE-PSE, PNV edo UPN buru direla ere, jarraitu beharreko bidea konpartitzen dute. Banka eta enpresa handiekin aliaturik daude euren poltsikoak betetzen jarraitzeko, langile klasea gero eta gehiago estuturik.

Nahikoa da. Euskal gehiengo sindikalak eraso hauei guztiei erantzun die eta egiten jarraituko dugu. Guretzat sorrarazten ari diren miseriazko etorkizuna ez dugulako nahi. Beste eredu bat eraiki beharra daukagu, eta bide horretan hasteko jarraitu behar diren neurriak jadanik ipini genituen mahai gainean 2009an proposatutako dekalogoaren bidez.

Eredu ekonomiko eta sozialak mundi guztiak pentsio duina izango duela bermatu behar du eta horretarako neurriak bai hartu behar dira, baina ez orain arteko norabidean, kontrakoan baino, hau da, aberastasunaren banaketan oinarrituta:

- **Enplegua sortu behar da, baina kalitatekoa:** soldatzen bat eta handiagoa orduan eta gehiago kotizatu.
- **Gazteak eta emakumeak** lan merkatuan sartu behar dira, baina baldintza eta aukera berdineta.
- **Fiskalitate justu eta progresiboa,** gehien irabazten dutenek gehiago ordain dezatela eta kapital errentak ez daitezela sarituak izan.
- **Euskal langileok gure pentsio sistema erabakitzeko** ahalmena ta bitartekoak behar ditugu. Erabakitzeko esparru propioa behar dugu.

Krisialdi honen ostean ezer ez zela berdina izango mehatxatu gintuzten. Geure esku dago hori lortzea, baina ez euren parametroetan. **Benetako aldaketaren alde borrokan jarraitu behar dugu, beste eredu ekonomiko eta sozial baten alde borrokan jarraitu behar dugu, herritarrek gutxi batzuen ekonomiaren mesedetan ez daitezen erabili, baizik eta ekonomia herritarren mesedetan.** Euskal langileok mobilizatu beharra dugu, kalera irten eta geure eskubideak errespetu ditzaten aldarrikatu.